

IDIAZABAL AGENDA 2030

TOKIKO EKINTZA PLANAREN ZIRRIBORROA (2023-02-24)

1. HE: HERRI TXIKI IZAERARI EUTSIKO DION HERRI JASANGARRI ETA BERDEGOA ANTOLATZEA, HERRITAR GUZTIEN ONGIZATEARI BEGIRA ETA INGURUMEN ZAINZAREN ALDE DAGOENA

1.1. HIRIGINTZA OREKATU, INKLUSIBO ETA ERRESILIENTE BATERAKO ERALDAKETA (PLAN OROKORRAREN BAITAN)

- 1.1.1. Klima aldaketak Idiazabalen izan ditzakeen ondorioak aztertu eta hauei egokitzeko erresilientzia estrategiak landu.
- 1.1.2. Kutsadura akustikoa ekiditeko N-1eko panel akustikoak jartzeko eskaera egin.
- 1.1.3. Etxebizitza beharren azterketa egin eta dauden beharrak asetzeko politikak garatu.
- 1.1.4. Hutsik dauden etxebizitza eta baserriak identifikatu eta hauek merkatura ateratzeko baliabideak eskaini.

1.2. HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN GARAPENA BULTZATZEA.

- 1.2.1. Oinezkoen bideak eta espazioak zabaltzen jarraitu, irisgarritasuna hobetu eta kotxearen erabilera murrizteko: Alde batetik irisgarritasun plana dago (ez zen 2019an onartu) eta bestetik Hiritik at enpresak eginiko prozesuan mugikortasuna hobetzeko egindako proposamenak.
- 1.2.2. Bidegorri sarea zabaltu eta hobetu.
- 1.2.3. Bizikletak konpontzeko eta garbitzeko gunea jarri.
- 1.2.4. Garraio publikoaren zerbitzua hobetu eta maiztasuna areagotzeko eskaera egin.
- 1.2.5. Goiko auzoan autobus geltokia jartzeko eskaera egin.
- 1.2.6. Herri barruko trafiko Ordenantza ezagutarazi, eta aplikatu.
- 1.2.7. Irisgarritasun arazoak dituzten auzoak berurbanizatzeko lanak egin.

1.3. BERDEGUNEEN ETA NATURA-ONDAREAREN KUDEAKETA BERRIA SUSTATZEA, LEHEN SEKTOREAREN GARAPENARI LOTURIK

- 1.3.1. Basogintza jasangarria bultzatu: bertako zuhaitzen landaketa, etab.
- 1.3.2. Idiazabalgo natur balioak (ekosistema lurtar eta urtarrak) babestea eta balioan jarri.
- 1.3.3. Herri onurako mendi lurren kudeaketa plana egin.
- 1.3.4. Naturaren kontserbazio ikuspegitik interesgarriak diren lursailen erosketa eta lursail hauek kudeaketa egokia egitea (landalur partzelak nahiz bideak).
- 1.3.5. Erreka ingurunea eta herri onurako mendiak mantendu eta garbitzen jarraitu
- 1.3.6. Herritar guztiek oinarritzko ur-, energia- eta elikagai eskubideak bermatuta ote dituzten ezagutzeko azterketa egin eta ondorengo esku-hartzea zehaztu.

1.4. HERRIAREN DESKARBONIZAZIOA SUSTATZEA, ENERGIA TRANTSIZIOAN BIDEA EGINEZ

- 1.4.1. Herritarra energia eraginkortasunaren eta berriztagarrien gaien informatu eta formatu.
- 1.4.2. Argiteria publikoa kontsumo baxuagoko teknologiatik aldatu.
- 1.4.3. Energia auto-hornikuntzarako egitasmoak bultzatu, energia trantsizio ez espekulatibo batean aurrera egin eta burujabetza baten bila, pobrezia energetikoko egoerak aintzat hartuta.
- 1.4.4. Udal eraikinetan eraginkortasun energetikorako hobekuntzak egin.
- 1.4.5. Berotegi efektuko gasen isuriaren sektorekako urtez urteko jarraipena egin.
- 1.4.6. Klima aldaketa zeharkako moduan landu udalean eta egiten diren proiektuetan aldagaia hau kontuan izan.
- 1.4.7. Herriko gas hornidura propanotik gas naturalera aldatzea baloratu.
- 1.4.8. Auto elektrikoentzako karga puntua jarri.

1.5. BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA ETA KONTSUMO EREDU JASANGARRI ETA ZIRKULARRA SUSTATZEA.

- 1.5.1. Udalerriko iturburuen inbentarioa egin.
- 1.5.2. Uren berrerabilpen sistemak ezartzeko bideragarritasuna aztertu.
- 1.5.3. Udalerriko eremu sakabanatuan egon daitezkeen saneamendu moduen inbentarioa egin.
- 1.5.4. Saneamendu sarea osatzen joan.
- 1.5.5. Udalaren erosketa eta kontratazioetan jasangarritasun-irizpideak sartu.
- 1.5.6. Ondasun komunitarako materialak berrerabiltzea eta birziklatzeko kultura zabaltzea.
- 1.5.7. Sasietako Mankomunitatearekin elkarlanean hondakinen gaikako bilketaren eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartu.
- 1.5.8. Bio-hondakinak bertan kudeatzeko bideak bilatu (auzo-konposta, etxe-konposta).
- 1.5.9. Eskuz egindakoen eta bigarren eskukoaren azoka egiten jarraitu eta herritar gehiagoren partaidetza sustatu.

2. HE: TRANTSIZIO SOZIOEKOLOGIKOAN (ENERGIA, ELIKADURA, ONGIZATEA, ZAINZTA...) OINARRITUKO DEN GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEA, INKLUSIBOA ETA BERRITZAILEA, BERTAKO ZERBITZU SEKTOREAREN ALDE EGINGO DUENA.

2.1. LEHEN SEKTOREA SUSPERTZEA, JARDUERA EKONOMIKOA KALITATEAREKIN ZEIN NATURAREN ZAINZAREKIN UZTARTUZ ETA OREKA LORTUZ.

- 2.1.1. Km 0 produktuen kontsumoa bultzatu.
- 2.1.2. Landa auzoen zaintza bermatu, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetuz: landa bideak, argindar hornidura, saneamendua,...
- 2.1.3. Elikagaien burujabetza eta kontsumo eredu jasangarriago bat bultzatzeko Baratzak bultzatu: Herri-baratzak prestatu.

2.2. HERRIKO INDUSTRIA EREDU JASANGARRIAGOETARA ERAMATEKO LANKIDETZA SUSTATZEA.

- 2.2.1. Pertsonetikiko eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa duen industria-eredu bat eraikitzen lagundu eta horretarako udala-industria sektorearen lankidetzarako bilguneak sortu.
- 2.2.2. Udalerriko enpresetan iraunkortasunerako eta ardura sozialarekin zerikusia duten irizpideak barneratu ditzaten elkarlana sustatu (ESG- Enviromental, Social, Governance) edo/eta GJH (GARAPEN Jasangarrirako Helburuak).
- 2.2.3. Ekonomia zirkularra bultzatzea (edo aukerak aztertzea) espazio industrialak elkarbanatzen duten enpresen artean.

2.3. ZERBITZUEN SEKTOREA BABESTEVA ETA DINAMIZATZEA, IDIAZABAL ZERBITZUZ HORNITU ETA BIZIA EMANEZ.

- 2.3.1. Herriko merkataritza eta zerbitzuei bultzada eman beharrak atzemanaz eta helburuak ezarriz: Herritarren kontsumoa fidelizatzeko kanpainak antolatu,...
- 2.3.2. Komertzio berrien irekiera sustatzeko laguntzak eman eta Idiazabal erosketaren eremu erakargarria bihurtzeko elkarlana egin.
- 2.3.3. Ustiapen bidez ematen diren udalaren zerbitzuetan bertako produktuen erabilera sustatzeko neurriak hartu.

3. HE: HERRITAR OROREN ONGIZATEA ETA OSASUNA BERMATUKO DUEN ETA ZAINZAREN BALOREAK SUSTATZEN DITUEN GIZARTE LAGUNKOIA ERAIKITZEA.

3.1. HERRITARREI ESKAINITAKO GIZARTE ZERBITZUEN KALITATEA HOBETZEA ETA HERRITARREN OSASUNA HOBETUZ MENPEKOTASUNA PREBENITZEA

- 3.1.1. Gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzu eta baliabideak herritarrei ezagutarazi, behar berriak aztertu eta hauei erantzuteko baliabideak egokitu edo berriak sortu.
- 3.1.2. Arlo ezberdinetan bizi ohitura osasungarriak bultzatu: bizitza aktiborako kanpainak abian jarri, osasunaren arloko hitzaldiak antolatu,...

3.2. HERRI INTEGRATZAILE ETA INKLUSIBOA GARATZEA, HERRITARREN ANIZTASUN EZBERDINAK AINTZAT HARTU, BABESTU, AHALDUNDU ETA DESBERDINTASUNAK MURRIZTEKO LAN EGITEA

- 3.2.1. Pobrezia egoerak desagerrarazi eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko neurriak hartu.
- 3.2.2. Herri inklusibo baterako lan egin. Aniztasun ekonomiko, fisiko, generozko, jatorrizko, ... guztiak errespetatu eta aukera eta baldintza berdinak izan ditzaten bermatu.
- 3.2.3. Etorkinak herrian integratzeko plana garatu, harrera protokoloa sortu eta sozializaziorako espazioak sortu.
- 3.2.4. Etxebizitzarako sarbidea erraztu herritarrei, arreta jarriz hutsik dauden etxebizitzetan eta zuzkidura bitoki eta etxebizitza babestuetan.

3.2.5. Idiazabalgo Haur eta Gazteria planaren berrikuspena egin (2006, Haur eta Gazteria zerbitzua).

3.3. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKO ERAGINKORRAK ABIARAZTEA

3.3.1. Idiazabalgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. plana garatu eta berrikusi.

3.3.2. LGTBI+ pertsonen egoeraren azterketa eta ondorioen sozializazioa egin. Kolektiboaren ikuspegia eta beharrei erantzuteko neurriak txertatu, baita eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuetan ere.

3.3.3. Herriko puntu ilunak identifikatu eta hauek gune seguru bilakatzeko dagokion eskuhartzea egin.

4. HE: GIZARTE EUSKALDUNA ETA HEZITZAILEA BERMATZEA ETA KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- SORKUNTZA ZEIN ESKAINTZA ZABALA SUSTATZEA, ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTAKOA

4.1. EREMU ETA GUNE EZBERDINETAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEA ETA SUSPERTZEA, TRESNA INTEGRATZAILE ETA INKLUSIBO GISA, HERRIKO ERAGILE ETA ENTITATEEN ARTEKO HARREMANA EUSKALDUNDUZ

4.1.1. IDIAZABALgo Euskararen erabilera sustatzeko plan berria egin eta garatu.

4.2. GIZA BALIOETAN, OSASUNAREN ZAINTZAN ETA IRAUNKORTASUNEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA EREDU BERRI BAT GARATU HERRI HEZITZAILE PROIEKTUTIK

4.2.1. Gizartea errespetuzko balioetan eta konpromisoan hezteko programak abian jarri.

4.2.2. Herritarren naturarekiko eta landa eremuarekiko harremana estutzeko nekazariekin hartu-emanen haur eta helduei beraien lana erakusteko bisitak eta hitzaldiak antolatu.

4.2.3. Bertako produktuen kontsumo jarrerak bultzatu, kontsumo ohituren aldaketak duen garrantzia herritarrei helaraziz

4.2.4. Baratze gintzan formatzeko belaunaldi arteko espazioa sortu herri baratzeetan.

4.2.5. Klima aldaketari aurre egiteko herritarren inplikazioa lortu, horretarako sentsibilizazio eta informazio kanpainak abian jarri.

4.2.6. Herritarrak iraunkortasun gai ezberdinetan informatu eta formatu: energia berriztagarriak eta energia eraginkortasuna etxean, erosketa jasagarria, ontzi-hondakin gutxiago sortzeko, etab.

4.2.7. Eskolako Agenda 2030 programarekin jarraitu.

4.3. KULTURA, KIROL ETA AISIRAKO EKIMENA, BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURAK HOBETZEA ETA SENDOTZEA

4.3.1. Kultura eta kirol eskaintza inklusiboa bultzatu, herritar ororentzat irisgarria: zaugarritasun egoeran dauden herritarrentzat, ezindu fisiko eta psikikoentzat,...

4.3.2. Kultura arloan partekatutako helburu berriak ezarri eta espazio kultural berri bat sortu.

4.3.3.Ondare inmateriala jaso eta transmititu.

4.3.4.Ondare eraikia katalogatu eta mantentzeko neurriak proposatu.

5. HE: HERRIGINTZA ETA GOBERNANTZA UZTARTUZ, GIZARTE AKTIBO ETA PARTEHARTZAILEA SUSTATZEA.

5.1. ELKARLANERAKO ETA PARTAIDETZARAKO EZPAZIOAK SORTU

5.1.1.Proiektu komunitario zehatzen baitan auzolana bideratu, pixkanaka herritar aktibo eta partehartzaile gehiago lortzeko helburuarekin.

5.1.2.Udalerriaz gaindiko eragile publiko zein pribatuekin elkarlanerako bideak zabaldu.

5.1.3.Izateko eta pentsaera ezberdinak dituztenen arteko itunak- sareak sustatu helburu guztiak lortzeko.

5.1.4.Gazteak herrigintzan inplikatzeko bide berriak aztertu eta abian jarri.

5.1.5.Idiazabal jasangarrirako helburuak herriko agente ezberdinekin konpartitu, elkarlana sustatu eta udal hitzarmenetan txertatu.

5.1.6.Zero Paper filosofiari helduz, Administrazio elektronikoaren zabalpenean aurrerapausoak eman, eta arrakala digitala murrizteko neurriak hartu.